

79. EUSKAL SOZIOMETROA (2023ko otsaila) Prensa oharra

SARRERA

79. Euskal Soziometroa 2023ko lehenengoa da. Bertan biltzen dira herritarrek egoerari buruz dituzten pertzepzioak eta euren jarrera eta balio politikoak.

Landa lana 2023ko urtarrilaren 31tik otsailaren 6ra bitartean egin zen.

EGOERAREN BALORAZIOA

Egoeraren balorazio positiboa, ekonomiarekin eta osasungintzarekin zerikusia duten kezkekin

Euskal biztanleriak 10etik 6,9 punturekin balioesten du bere “egungo egoera pertsonala”, eta 7,0 punturekin urtebete barru izango duela uste duena.

“Euskadiren egungo egoeraren balorazioa” 6,0 puntukoa da, eta ez da espero aurten aldatuko denik, urtebete barruko balorazioak puntuazio bera jasotzen baitu.

“Espainiaren egoerari” dagokionez, egungo egoeraren balorazioa 4,8 puntukoa da, eta itxaropena ez da positiboa, urtebete barru espero den egoerari buruzko balorazioa apur bat okerragoa baita, 4,7 puntukoa.

Euskadiko arazo nagusiei dagokienez, gizartearen lehen kezka lan-merkatuarekin lotutako arazoetan dago berriz ere. Hala, biztanleriaren % 59k aipatu du hiru arazo nagusien artean.

Osasungintza da gehien aipatzen den bigarren arazoa (% 35), eta, ondoren, arazo ekonomikoak (% 28).

Ondoren, beste arazo batzuk daude, hala nola etxebizitza eta etxegabetzeak (% 14), delinkuentzia eta herritarren segurtasunik eza (% 14), eta egoera politikoa eta politikariak (% 12).

Oro har, herritarrak baikorrak dira Euskadiren etorkizunarekiko (% 72, asko edo dezente), 2016an eta 2022an erregistratutako ehunekoaren antzekoa da hori.

Euskal biztanleriak konfiantza gehien duen erakundea unibertsitatea da (% 85ek dute konfiantza unibertsitatean), eta haren atzetik daude Eusko Jaurlaritza (% 78), diputazioa (% 74), Eusko Legebiltzarra (% 72) eta udala (% 72). Halaber, gehienek konfiantza dute GKEetan (% 60), Europar Batasunean (% 56) eta enpresetan (% 55), eta zertxobait gutxiagok sindikatuetan (% 45) eta justizia-auzitegieetan (% 45). 10etik 4k baino gutxiagok dute konfiantza Espainiako Gobernuan (% 37), komunikabideetan (% 31), eliza katolikoan (% 27), Diputatuen Kongresuan (% 27), bankuetan (% 20), alderdi politikoetan (% 20) eta, azkenik, Espainiako monarkian (% 18).

JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Egonkortasuna alderdien eta buruzagi politikoaren balorazioetan

Begikotasun politikoei dagokienez, EAJ da herritarren artean begikotasun handiena sortzen duen alderdia, 5,1 punturekin 0tik 10erako eskalan. Ondoren, PSE-EE (4,3), EHBildu (4,0), Elkarrekin Podemos (3,6), PP (1,8), eta, azkenik, Vox (0,6) daude. 2022an jasotako balorazioak mantendu edo oso gutxi aldatu dira.

Buruzagi politikoei dagokienez, baloraziorik altuena Iñigo Urkullu Lehendakariari dagokio, 5,7 puntu lortu baititu 0tik 10erako eskalan. Bigarrenik, Maddalen Iriarte ere ontzat eman dute herritarrek, 5,5 punturekin. Ondoren datoz Miren Gorrotxategi (4,8), Eneko Andueza (4,4), Amaia Martinez (2,8), eta, azkenik, Carlos Iturgaiz (2,1). 2022koekin alderatuta, buruzagi politikoaren balorazioak mantendu ala apur bat igo dira.

Herritarren % 46 “soilik euskal herritar” edo “euskal herritar, espainiar baino gehiago” sentitzen dira, % 41 “euskal herritar bezain espainiar”, eta soilik % 8 “espainiar euskal herritar baino gehiago” edo “bakarrik espainiar”.

Bestalde, Euskadiko biztanleen % 23 independentziaren alde daude, % 31 independentziaren alde edo kontra leudeke egoeraren arabera, eta % 41 aurka daude.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 3.030 lagunek osatua da. Elkarriketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 1,8$ koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2023ko urtarrilaren 31tik otsailaren 6ra egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>